

14 / ENPRESA ZIENTZIEN
FAKULTATEAK, 2. ZIKLOA
ENPRESA ADMINISTRAZIO
ETA ZUZENDARITZAN,
IRUNGO CAMPUSEAN

16-17 / JOSE
ANTONIO
MENDIKUTE,
HUHEZI-KO
DEKANOA




19 / EDERTEK, UNIDAD DE
I+D DE MCC AUTOMOCIÓN,
SE TRASLADARÁ AL POLO
DE INNOVACIÓN GARAIA,
EN MONDRAGÓN

MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2006ko uda | 3. zenbakia

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAK
INDARTU EGIN DU
GRADUONDOKO
ESKAINTZA



KM
Kulturunea

KOLDÓ MITXELENA
Kulturunea
gero eta hurbilago

KOLDÓ MITXELENA. Kulturunean egiten diren ekitakdiak interneten bidez ikus ditzakezu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto. Ikus: www.gipuzkoa.net/kultura

KOLDÓ MITXELENA. Kulturuneko Liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzailek guri eskatuko ditzkigute eta biharamunean zurean izango dira. /chaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zerrendak eta Nazioartea
Dirección General de Cultura

Koldo Mitxelena Kulturunea- Urderreta 9
20006 Donostia-San Sebastián
www.gipuzkakultura.net

Lerro artean irakurtzen duzu?

150.000 erreferentzia baino gehiago liburu,
musika, DVD edo jokoetan...
Kultura eta aisialdian aukera zabalena zure elkar megadandan.

Más de 150.000 referencias en libros, música, DVD-s, juegos...
Descubre la mayor selección de cultura y ocio en tu tienda elkar.

J Lees entre Líneas?



www.elkar.com

elkar
elkar ezagutzen dugulako
porque ya nos conocemos

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

AURKIBIDEA

03

Editoriala

04-05

Berriak

06

Iritzia · Juani Igartua

07

Mendeberri

08-11Erreportajea ·
Graduondoko eskaintza**12**

Nazioarteratzea

13

GEP · Goi Eskola Politeknikoa

14EZF · Enpresa Zientzien
Fakultatea**15**HUHEZI · Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea**16-17**Elkarritzeta:
Jose Antonio Mendikute**18**

Erakundeak · Lanki

19

Ikerkuntza · Edertek

20

Zerbitzuak

21

M.U. kirol zerbitzua

22

Agenda akademikoa

GRADUONDOKO IKASKETAK INDARTZEN ARI GARA

Egun hezkuntzaz eta formazioari buruz egiten diren txosten eta hausnarketa guztiak azpimarratzen dute etengabeko garapen profesionalaren garrantzia. Ez baita inoiz ikasten bukatzen. Aitzitik, profesional bezala, eta pertsona bezala noski, ditugun erronkek beharrezkoa egiten dute etengabe ikasten jarraitzea, bai informalki gure bizitzan eta lanean ditugun esperientzia eta bizienguztien bidez eta esparru formaletan, helburu horretarako prestatuak eta diseinatuak izan diren programak jarraituz. Bakoitzak dituen beharren arabera, programa hori izan daiteke ikastaro labur bat edo, beste ertzera joanez, master programa sakon bat.

Hainbat ikerketak frogatzen dute etengabeko garapen profesionalak eragina duela enpresen, hezkuntza erakundeen eta gainontzeko erakundeen arrakastan.

Mondragon Unibertsitateak urteak daramatza aipatu beharrei erantzuten, 21 urte. Ia 3.000 pertsonak jarraitzen dituzte programa horiek. Urtero-urtero gure eskaintza aztertu eta egokitzentz dugu, langileen beharrei erantzuteko. Horrela, gure eskaintzan aurki daitezke mundu profesionalean murgildu behar direnei edo espezializatu nahi dutenei zuzenduriko programak eta baita beraien lanbidean formazioa eguneratua nahi dutenei.

Helburu horiek lortzeko, hainbat programa eskaintzen dira urtero: masterrak, aditu ikastaroak, ikastaro aurreratuak eta iraupen laburreko hainbat ikastaro.

Aurten, gainera, master programa osatu dugu, zeren orain arteko gure programa propioaz gain, programa ofiziala sortu baitugu, Bolognatik datorzkigun aholkuei jarraituta. Aldaketa horrek gehiago hurbilduko

“Gure misioaren helburu nagusia da pertsonen formazio integrala eta, beraien bitartez, unibertsitatea izatea garapen sozial eta ekonomikoaren eragile”

gaitu Europako hezkuntza esparrura, gure unibertsitatearen helburuetako bat azken urteotan.

Gure misioaren helburu nagusia da pertsonen formazio integrala eta, beraien bitartez, unibertsitatea izatea garapen sozial eta ekonomikoaren eragile. Graduondoa eta etengabeko formazioa bide garrantzitsuak dira helburu hori lortzeko. Hori da gure erronka: laguntzeko gai izatea lan munduan behar diren konpetentziak eta ezagutzak garatzen eta bakoitzak dituen behar zehatzei erantzuten.

MUiversitas

Argitaratzalea Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • [23. p.k.] ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

Koordinatzalea Joxe Aranzabal | Erredakzio kontseilua Mila Arregi, Susana Azpilikueta, Idoia Peñakoba eta Gurutze Uribarren
Laguntzaileak Joxe Mari Aizaga, Mikel Aranburu, Nekane Arratibel, Fred Feundlich, Juani Igartua, Iosu Lizarralde, Silvia Sarasola, Jon Sarasua, Begoña Ugarte, Mikel Usabiaga

Tirada 5.600 ale | Lege gordailua SS-1360/05 | Diseinua eta publizitatea Arteman Komunikazioa
Azaleko ilustrazioa Lorena Martínez | Argazkiak Ander Gillenea | Moldiztegia Gerto (Oñati)



M N G N
UNI E TSIT TE

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE M.U. Y LA UNIVERSIDAD DE ANTIOQUÍA (COLOMBIA)

La Universidad de Antioquía y la Facultad de Ciencias Empresariales de M.U., han firmado un convenio de cooperación, mancomunando sus actividades curriculares de grado, posgrado y doctorado.

Este convenio hará posible:

- El intercambio de investigadores, personal docente y estudiantes para desarrollar sus actividades docentes y de prácticas o pasantías estudiantiles
- La realización conjunta de trabajos, artículos o monografías científicas.
- La realización de proyectos de investigación.
- Las ejecución de actividades empresariales

**GANDIAGA
TOPAGUNEAN,
ARANTZAZUN**
Kongresua
Gandiaga
Topagunean
izango da,
Arantzazun,
leku egokia
hausnarketa-
rako.



II JORNADAS SOBRE DERECHO TRANSFRONTERIZO

La Facultad de Ciencias Empresariales de Mondragon Unibertsitatea ha editado su segundo libro sobre los aspectos jurídicos relacionados con la realidad transfronteriza:



Trabajar y ser propietario en Francia. Este trabajo se enmarca en las II Jornadas sobre Derecho Transfronterizo celebradas en febrero del 2005 en Irún, en el Campus de Bidasoa de la Facultad de Ciencias Empresariales.

Mondragon Unibertsitateko Zerbitzu Editorial
Loramendi kalea, 4-(23 p.k.)
20500 ARRASATE-MONDRAGON
(Gipuzkoa)
ISBN: 84-689-4899-3

BERRIAK

XIII CONGRESO DE LA IAFEP

La Facultad de Ciencias Empresariales de M.U. será anfitriona de un Congreso Internacional de Investigación en Economía Social del 13 al 15 de julio 2006. Se trata del XIII Congreso de la IAFEP (International Association for the Economics of Participation), que se celebrará en el centro de congresos Gaudiaga Topagunea, en Arantzazu. Participarán investi-

gadores de diversas ciencias sociales. Será una buena oportunidad para conocer a estudiosos de la economía social.

Inscripción e Información. La inscripción será gratuita para estudiantes, socios y trabajadores de cooperativas de MCC/MU. Inscripción (imprescindible): <http://www.eteo.mondragon.edu/I AFEP/IAFEP.php>

TERMODIFUSIOAREN OINARRIAK LIBURU BATEAN JASOTA

The modifusion: Basics and Applications bilduma bat da, eta jasotzen ditu International Meeting on Thermo diffusion konferentziaren 7 edizioan (IMT7) aurkeztutako lanak. Liburu hiru atal nagusitan banatzen da, eta hauetako bakoitzak ikuspegi bat garatzen du Termodifusioaren eraginaren inguruan: garapen teorikoa, anumerikoa eta experimentala. Laugarren ata-



lean hitzaldi nagusietan aurkeztutako lanak agertzen dira.


Liburu honekin kaltatezko dokumentu bat sortu nahi izan da, erreferentzia gisa erabil dadin, batez ere Soret Efektuaren inguruan lanean dabilen jendearen artean. Horrezaz gain, liburuak areagotu egingo du kongresuaren ospea, eta parte-hartzaileei lagundu aurkezpenak jarraitzen. ISBN: 84-689-8814-6.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BERRITU ETA BATERATU EGINGO DU BERE WEBGUNEA

Martxoan ezkero eta ikasturtea amaitu bitartean, Mondragon Unibertsitatea jo eta ke arituko da bere webgunea berritzen. Martxoan webgunearren behin behineko bertsio bat atera zen, matrikulazio kanpainan bezeroek behar duten gutxieneko informazioa izan dezaten. Hortik aurrera webgunea haziz joango da, erabat amaitu arte.

Behin webgunea amaitzen denean fakultateen gaur egungo webgunek desagertu egingo dira, eta M.U.k webgune bakarra izango du. Bezeroa hortik sartuko da fakultateetara. Bai M.U.en webgunek eta bai fakultateenak irudi bateratua izango dute, gainera.

Ezaugarri teknikoei dagokienez, webgune berria oinarrituko da CMS batean, alegia, Edukiak Kudeatzeko Sistema batean, horri esker webguneko edukiak erraz kudeatuko dira-eta. Halaber, hiru hizkuntzatan argitaratuko da



(euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), nahiz eta euskara izango duen besterik ezeko hizkuntza.

Bi enpresa ari dira webgune

berria lantzen: Vocento Media-trader arduratuko da edukien diseinuaz eta antolakuntzaz, eta CodeSyntax arlo teknikoaz.

WEB DINÁMICA Y AUTÓNOMA

Ésas serán las características más notables de la nueva web de M.U. Su desarrollo será progresivo, pero una vez finalizada, unificará en ella todas las web de las facultades.

ERAKUNDEEK, GERO ETA ARGIAKO MARKAREN GARRANTZIA

Maiatzaren 17an 105 lagun hurbildu ziren Kursaal jauregira, Donostiara, "Branding-a: hemen eta orain" izeneko jardunaldi eta gehienak enpresetako ordezkariek eta unibertsitate ikasleak. M.U.k eta AZK Komunikazio enpresak antolatu zituzten jardunaldiok, Gipuzkoako Merkatarienza Ganberarekin batera.

Jende kopuru handiak argi erakusten du Euskal Herriko era-kundeek gero eta garrantzi handiagoa ematen diotela marka ondo gestionatzeari, batez ere mundu globalizatuan. Baigoizeko hitzaldietan nola arratsaldean izandako mintegian jendeak gogoz hartu zuen parte.

Ikusitalehen jardunaldi hauek zer harrera ona izan duten, antolatzaileak hasi dira pentsatzen bigarrenetan, seguruenik datoaren uterako.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN AUTOBUSAK HARRERA ONA IZAN DU

Martxoaren 13tik apirilaren 8ra bitartean, M.U.en autobusak 23 herri bisitatu zituen Hego Euskal Herrian. 500etik gora lagun hurbildu ziren autobusera informazio eske, eta han izan zituzten unibertsitateko 50 bat irakasle, eran-

tzuteko gertu.

Mondragon Unibertsitateak balorazio positiboa egin du esperientzia pilotu honen gainean, eta nabarmendu du ekimenaren ikusgarritasuna, berritasuna eta eragina.



ESPERIENZIA BERRITZAILEA

Autobusak aukera eman du jende askorengana hurbiltzeko, bestela M.U.ra hurbilduko ez litzatekeen jendearenga-na.

“APRENDER HACIENDO” EN LA FORMACIÓN DEL ESTUDIANTE DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Según los últimos borradores del proyecto de real decreto a implantar antes de 2010, por el que se establece la estructura de las enseñanzas universitarias y se regulan los estudios universitarios oficiales de grado, los universitarios tendrán que hacer un proyecto de fin de carrera para obtener el futuro título de grado (que sustituye a las actuales licenciaturas y diplomaturas). Según el borrador, este proyecto que puede durar entre tres meses y un año, y que podrá ser una investigación, un trabajo o incluso prácticas en empresas con las que la universidad haya suscrito un convenio, busca hacer un curso más de tipo práctico tras el cual deben redactar el proyecto de fin de carrera, para obtener finalmente el título de grado.

En este ámbito, la escuela y facultades de Mondragon Unibertsitatea llevan más de veinte años de anticipación a lo que el decreto plantea para un futuro.

Bajo nuestro diferencial modelo educativo, los proyectos fin de carrera juegan un papel muy importante en el proceso formativo del alumno, ya que, a través de la ejecución satisfactoria de un proyecto de características adecuadas a su perfil profesional futuro, se pretende que el alumno tenga su primera experiencia real tutorizada, además de lograr establecer una relación alumno–empresa/organización/entorno de investigación adecuada a las características de su perfil profesional, mostrando al alumno en qué consiste su futuro trabajo, además de ser



LORENA MARTINEZ

“Gaurko gizartea eskatzen die bukatu berriei aitzindari izatea, ekintzaile eta taldekuide on”



Juan Igartua
Berrikuntza
eta Kalitate
zuzendaria
GEPen

un elemento clave en la inserción laboral de nuestros alumnos, por la importancia que los contratadores otorgan a la experiencia previa.

Además, a través de los Proyectos Fin de Carrera se aporta un gran valor a las empresas, organizaciones y unidades de investigación, ya que por un lado se contribuye a su desarrollo tecnológico y organizativo; y por otro se pone en contacto a las empresas y organizaciones con

cualificados con posibilidad de integrarlos profesionalmente en su plantilla.

Por otro lado, Mondragon Unibertsitatea dispone de otros mecanismos de “aprender haciendo”, como son las prácticas profesionales y el modelo estudio-trabajo, que son también importantes, ya que permiten al alumno desarrollar sus capacidades y descubrir y afianzar su vocación.

La sociedad hoy prioriza en los egresados ser emprendedores, líderes, con capacidad de trabajar en equipo y gran manejo en las relaciones humanas, por lo cual, son claves los mecanismos de “aprender haciendo”, así como, el trabajo interdisciplinar que conlleva.



BARNE JARDUNALDIAK

PRAKTIKA EGOKIAK JASO ETA PARTEKATU, HEZKUNTZA EREDUA HOBETZEKO

MONDRAGON
UNIBERTSITATEAK
JARDUNALDI BATZUK
ANTOLATU DITU IRAKASLEEN
PRAKTIKA ONAK AZTERTZEKO

Jardunaldi horiek garrantzitsuak dira M.U.ren hezkuntza ereduagaratzeko. Gero eta nabarmenagoa da ikasleen ikaskuntza hobezteko, beharrezkoa dela irakasleen etengabeko formazioa, irakasleen arteko koordinazioa eta irakasleen artean ere berrikuntza eta esperientzia berritzaleak bultzatzea.

Ekainaren 16an M.U.ko irakasleek barne jardunaldiak egingo dituzte. Jardunaldi horien helburua da tarte bat eskaintza Mondragon Unibertsitateko irakasleen jarduerari buruzko eztabaida eta hausnarketari. Irakas-

leek aukera izango dute beraien esperientziak eta praktikak azaltzeko eta konpartitzeko.

Mendeberri projektua ezartzeakarri du esperientzia berrixtaile asko sortzea. M.U.k bere irakasle guztiak esku ipini nahi ditu esperientziak, eta horregatik antolatu ditu jardunaldi hauek. Aurkezpenak gaika sailkatuko dira, eta goizean aztertuko. Arratsaldean, berriz, ondorioak ate rako dira.

El objetivo de esta jornada es provocar el debate, análisis y reflexión sobre la actividad docente del profesorado de M.U.. Constituye una buena oportunidad para que los profesores y profesoras de Mondragon Unibertsitatea pongan en común sus experiencias.

La implantación del proyecto Mendeberri está suponiendo la puesta en marcha de numerosas experiencias innovadoras. Por eso, la participación en esta jornada, ya sea a través de presentación de experiencias o bien como asistente a la misma, puede servir de aprendizaje y mejora de la propia labor docente y revertir muy favorablemente en el proceso de innovación docente en el que está comprometida M.U.

Los temas a presentarse agruparán en paneles temáticos. A lo largo de la mañana se presentarán las diferentes experiencias y a la tarde, se profundizará en algunas de las conclusiones obtenidas de dichas presentaciones.

Joxe Mari Aizaga

COMPARTIR EL CONOCIMIEN-

TO
Ahí radica uno de los secretos del proyecto Mendeberri, un modelo educativo dinámico y abierto, en consonancia con las exigencias educativas europeas. En la foto, el grupo de profesores encargado de Mendeberri en la Facultad de Ciencias Empresariales.

M.U. CONSOLIDA SU OFERTA DE POSGRADO CON SIETE NUEVOS MASTER OFICIALES

ESTOS SIETE MASTER OFICIALES, JUNTO A LOS CUATRO DOCTORADOS, CONSTITUYEN LOS CUATRO PROGRAMAS OFICIALES DE POSGRADO EN LAS ÁREAS DE INGENIERÍA, GESTIÓN AVANZADA DE LA EMPRESA, EDUCACIÓN Y COOPERATIVISMO Y ECONOMÍA SOCIAL.

Para entender convenientemente las características de la oferta de posgrado de Mondragon Unibertsitatea, conviene recordar que M.U. está integrada en Mondragón Corporación Cooperativa (MCC), grupo empresarial que cuenta con 230 empresas y unos 72.000 trabajadores. Además, M.U. está implicada en la renovación permanente del sistema educativo, y trabaja conjuntamente con un gran número de centros escolares del país. Todo ello explica el alto porcentaje de aprendizaje práctico de los programas de posgrado de M.U. y que los programas concluyan con la realización de un proyecto fin de master en una empresa o centro educativo.

Cuatro razones diferencian el programa de posgrado de Mondragon Unibertsitatea:

1. El desarrollo profesional.

2. La cercanía al mundo profesional y de la enseñanza
3. La innovación permanente.
4. La empleabilidad cualificada.

Mondragon Unibertsitatea cuenta con 21 años de experiencia en este terreno y un variado programa de master y cursos experto universitario. Los primeros comprenden, como mínimo, 50 créditos y los segundos, entre 20 y 50. Esta oferta combina ponencias de expertos en las distintas materias, con la aplicación práctica de conocimientos en talleres, laboratorios y centros educativos y la realización de un proyecto final.

Estos estudios de posgrado están orientados a la especialización y desarrollo profesional de jóvenes titulados y de profesionales en activo en distintas áreas. También sirven para dar a

conocer nuevas tendencias, ideas, filosofías o modelos emergentes, relacionados con el mundo de la empresa y la educación.

Sin embargo, la gran novedad para este próximo curso es que Mondragon Unibertsitatea ofrecerá siete master oficiales, de acuerdo a las especificaciones emanadas del proceso de Bolonia por las autoridades universitarias europeas. Los programas oficiales se impartirán en las áreas de Ingeniería, Gestión Avanzada de Empresa, Educación y Cooperativismo y Economía Social.

OFERTA DE GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Goi Eskola Politeknikoa ofrece su programa de posgrado con una clara orientación a la empresa. La oferta está estructurada en tres grandes áreas: Organización y gestión industrial, Innovación y



21 URTEKO ESPERIENTZIA
Mondragon Unibertsitateak 21 urteko esperientzia du graduondo ikasketak lantzen, beti ere enpresetik eta hezkuntza erakundeeta-tik gertu.



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

desarrollo industrial y Tecnologías de la Información y Comunicación:

ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN INDUSTRIAL

- Master en Dirección de Producción.
- Master en Dirección de Operaciones y Logística Integral.
- Curso Experto en Logística Integral.
- Curso Experto en Gestión de Proyectos.
- Curso Avanzado en Gestión de Mantenimiento.
- Curso Avanzado en Monta-

je y Mantenimiento.

- Master en Prevención de Riesgos Laborales.
- Curso Sigma, una estrategia de negocio.

INNOVACIÓN Y DESARROLLO INDUSTRIAL

- Master en especialización técnica en competición automovilística.
- iCasT Master de Innovación Tecnológica en Fundición.
- Curso Avanzado en Automatización Industrial.
- Master Oficial en Comportamiento Mecánico y Materiales

TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN.

- Master Oficial en Tecnologías de la Información y Comunicaciones.
- Curso Avanzado en Desarrollo Web cn J2EE.
- Curso Experto en Configuración de Redes Cisco.
- Curso Experto en Seguridad Informática.

El master más representativo es el Master en Dirección de Producción, con 16 años de experiencia. Goza de una gran aceptación, y está en constante renovación, tanto en la meto- →

→ dología como en los contenidos.

Otro master que está dando mucho que hablar es el "Master en especialización técnica en competición automovilística", impartido en colaboración con Epsilon-Euskadi, un curso con gran atractivo, por su estrecha relación con la competición automovilística de élite.

OFERTA DE LA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

La Facultad de Ciencias Empresariales concentra la mayor parte de la oferta de posgrado en Gestión y Dirección de Empresas, con estos cursos:

- Master Oficial en Dirección de Empresa MBA.
- Master en Banca y Bolsa.
- Master en Dirección de Proyectos Empresariales.
- Master en Sistemas de Información Empresarial MSI.
- Master en Dirección de Empresas MBA Executive.
- Master Oficial en Gestión de Empresas Cooperativas.

"El master más emblemático de todos es el Master en Dirección de Empresa", nos dice José Luis Abaunz, responsable de posgrado en la Facultad de Ciencias Empresariales, "hasta ahora ha sido un título propio, pero en adelante será oficial". Dispone de una organización especial, con una parte troncal, el MBA, que se extiende desde octubre a febrero, pero que luego se diversifica en cinco menciones o posibilidades de especialización: Dirección General, Dirección Financiera, Dirección de Marketing, Logística y Transporte y Gestión y Dirección de Entidades Deportivas.

"También el Master en Gestión de Empresas Cooperativas es nuevo y oficial", señala José Luis Abaunz. "Dispondrá de un primer recorrido troncal, para más tarde dividirse en dos itinerarios; uno de ellos se impartirá en Eskoriatza y el otro en Oñati".

OFERTA DE HUHEZI

La mayor parte de la oferta de posgrado de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, HUHEZI, va dirigida a la educación:

- Curso Experto en Tecnolo-




gías de la Información y la Comunicación aplicadas a la Formación

- Curso Experto en Gestión de Lenguas.
- Curso Experto en Capacitación Pedagógica.
- Curso Experto en Desarrollo Personal y Liderazgo de Equipos.
- Master Oficial en Interculturalidad y Plurilingüismo.
- Master Oficial en Investigación en Educación.

Esta oferta de posgrado se complementa con los programas de doctorado, ya que, en adelante, según las nuevas orientaciones emanadas de Bolonia, quien desee doctorarse, deberá de realizar previamente un master de investigación, y luego acometer el doctorado.

GRADUONDOKO IKASLEAK, URTEKA





ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

PRIMERAKOA ESPEZIALIZA- TZEKO

Lizentziatu berriak eta lanean diharduten profesionalak nahasten dira graduondoko ikasketak egiten, biek ere bilatzen baitute espezializazioa ikasketa hauetan, enpresen eta hezkuntza erakundeen errealtitatean oinarritutakoa.

NIK MBA BAT EGIN NUEN, MASTER BAT ENPRESA ADMINISTRAZIOAN

2002ko ekaina. Ez zen, ez hilabete erraza izan. Batetik, lizentzia amaiera; bestetik, azken azterketak. Eta horri guztiari egoerak sortarazten duen urduritasuna gehitu behar. Bi hitzetan esanda, azken esprinta.

Behin lizentzia gaindituta, galduetu nion neure buruari: orain zer? Erantzun posibleak, ordea, gutxi: segi ikasten, hasi lana bilatzen, edo biak tartekatu.

Azkenarekin gelditu nintzen. Hori bai, nahiko lan izan nuen erabakitzen lizentzia berria estreinatu edo graduondoko bat egin. Nire prestakuntza osatze aldera, pentsatu nuen onena izango zela graduondoko bat egitea, eta hainbat master aztertuta, erabaki nuen MBA egitea, nahiz eta bazegoen bestelako eskaintzarik ere: finantzen arlokoa, ERP-BAAN...

MBA aukeratu nuen enpresaren alderdi gehienak aztertzen dituelako (giza baliabideak, finantzak, marketina, teknologia, I+G...), ez baita zentratzen alderdi batean.

Egia esan, oso zaila da bederatzi-hamar hilabete dirauek ikastaro batean enpresako alor guztiak sakon aztertzea, baina graduondokoa amaitutakoan egin beharreko bakarkako proiektuak aukera ematen dizu sakontzeko gehien atsegin duzun alorrean.

Lan egiteko modua, gainera, oso eramangarria da. Talde lanak dira gehien bat egin beharrekoak eta, nola ez, behin eginda, besteak aurrean azaldu beharrekoak. Ez da lan makala izaten, baina bizitza profesionalean behin baino gehiagotan suertatzen dira antzeko egoerak, eta ez dator bat ere gaizki horrelakoetarako prestatzeko joatea.

Hori bai, MBA egin bitartean, bisitei atera nien etekin handiena, inguruko enpresetatik eterritakoei eta guk kanpora egindakoei. Adibide baterako, Fagor, Euskadiko Kutxa, Eroski, Irizar... Bakoitzak merkatu bat dauka, bere arazoak. Lan egiteko modua guztiz aldatzen da batean eta bestean... Esperientzia eta ideia aniztasun horrek aberastu egiten du norbanakoa.

Bestela esanda, graduondoko hamar hilabeteak

“Graduondoko hamar hilabeteak ondorengo lau hitzekin laburbilduko nituzke: anitza, talde lanaren bultzatzailea, edukiz aberatsa eta errealtatera bideratua”



**Mikel
Aranburu**
Zuzendaria
Aretxabaletako Banco
Guipuzcoan

ondorengo lau hitzekin laburbilduzko nituzke: anitza, talde lanaren bultzatzailea, edukiz aberatsa, eta errealtatera bideratua.

Egia esan, horrelako graduondoko bat gaindituta, uste duzu mundua jateko gai zarela, baina ibilibide profesionalari ekiten diozunean konturatzen zara orain arte ikasitakoa oso ondo dagoela eta beharrezko dela, baina benetako izerdiak eguneroko lanean botatzen direla, lan lekua dela “borrokarako” eremu, eta laneko egun bakoitzak gainditu beharreko azterketa bat dela.



CONCLUSIONES DE UN SEMINARIO

TEAM ACADEMY, UN MODELO DE EMPRENDIZAJE EN FINLANDIA

A FINALES DE MARZO, M.U. ORGANIZÓ UN SEMINARIO CON TRES MIEMBROS DE TEAM ACADEMY, UNA ORGANIZACIÓN DE LA UNIVERSIDAD JYVÄSKYLÄ, DE FINLANDIA, CREADA PARA LA PROMOCIÓN DEL EMPRENDIZAJE ENTRE LOS ALUMNOS DE LA UNIVERSIDAD.

Desde su creación hace 13 años, Team Academy ha creado 180 empresas. Su misión es guiar y crear emprendedores, con un doble objetivo: imbuir el emprendizaje dentro de grupos de trabajo, y hacer desaparecer el paro de Finlandia.

El grupo es el ámbito de trabajo ideal en Team Academy, y en él los estudiantes trabajan multitud

de habilidades: cómo negociar, el *feedback*, cómo liderar y comunicar... No tienen profesores, en el sentido clásico del término, sino entrenadores o *coaches*, que realizan una labor de guía y consejero.

En Team Academy priman las relaciones personalizadas, el aprendizaje a través de la acción, el emprendizaje en grupo, la experimentación valiente y el aprendizaje a través del viaje.


KONFIANTZA IKASLEENGAN
Atentzioa ematen du Team Academyk zer konfiantza ematen dien bertako ikasleei. Babesa eta aholkularitza ematen die, baina baita erantzukizuna ere.

BOOKS THAT INSPIRE

Along with the projects and team activities the studies are also performed by reading business literature. The purpose of reading isn't studying by heart or reading for exams. The principle of Team Academy is that "a useless book is not worth of reading and that reading is one of the funniest things you can do with your trousers on."

"After reading you transfer the knowledge into practice by using the ideas you get from the books in your projects. You hit two flies at the same time – you get a hold of the theory and then work with the help of it." That's the way they see it.

HELBURU PRAKTIKOAK
 Mikrofabrika-zio laboratorioaren helburua da ekipamendu esperimentalak izatea eta negozio aukera berriak sortzea Euskal Herriko enpresentatzat.



GOI ESKOLA POLITEKNIKOAPUESTA POR LAS TECNOLOGÍAS DE FABRICACIÓN

ES INDUDABLE QUE LA EVOLUCIÓN DE LOS MATERIALES, DE LAS HERRAMIENTAS Y ÚTILES, ASÍ COMO DE LAS TÉCNICAS DE TRANSFORMACIÓN HAN SIDO Y SERÁN UNA CONTINUA INTEGRACIÓN QUE HA PERMITIDO UNA EVOLUCIÓN DE LA HUMANIDAD Y DE LA SOCIEDAD.

Los nuevos retos de la sociedad actual y del futuro van a requerir de unas capacidades de fabricación que nos acerquen a los retos del futuro en Europa. Estas nuevas necesidades y expectativas plantean retos fabriles que los especialistas en el ámbito de las tecnologías de fabricación deberán afrontar, y que ayudarán a construir dispositivos *lab-on-a-chip*, MEMS, microsistemas, sistemas micro/nano electromecánicos, y que suponen toda una evolución tecnológica. Sin duda, una de las claves de su cons-

trucción es la miniaturización.

Es en este ámbito de actuación, y más concretamente en la microfabricación, donde M.U. centra una de sus apuestas científico-tecnológicas. Para ello, ha dispuesto en el Polo Tecnológico Garaia de un laboratorio de microfabricación, el cual centrará su actividad en sus primeros años en el microfresado y el conformado mediante láser, en la idea de poder aportar a las empresas y científicos de los

ámbitos micro, nano y bio soluciones constructivas y fabriles viables, eficientes y económicas, claves de un éxito empresarial que fomente la creación de riqueza para el país en los nuevos sectores emergentes.

El objetivo principal de este laboratorio es disponer de equipamiento experimental para reforzar una línea de investigación tecnológica que puede representar una nueva oportunidad de negocio para las empresas vascas dedicadas al sector del mecanizado y la máquina-herramienta fuera del campo del mecanizado convencional.

M.U. a través de este laboratorio puede, además, combinar en sus investigaciones el mecanizado con técnicas de simulación numérica, perfilometría y microscopía electrónica de barrido, investigando aspectos como la mecánica de formación de viruta a escala microscópica.

M.U. ha dispuesto de un laboratorio de microfabricación en el Polo Tecnológico Garaia

SEGUNDO CICLO EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS EN IRÚN

IKASKUNTZA PARTEHAR-TZAILEA

Bigarren ziklo honek ikasle-en sorkuntza ere landuko du, beraien gaitasuna erabakiak hartzeko, iritzi kritikoa eta konfianza bere buruan.

LA FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES DE MONDRAGÓN UNIBERTSITATEA, CON LA COLABORACIÓN DE SAIOLAN, LANZARÁ EL CURSO 2006-2007 EL SEGUNDO CICLO EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS, ORIENTADO AL DESARROLLO DE PROYECTOS EMPRESARIALES

Este segundo ciclo estará compuesto por dos cursos académicos, en los cuales se desarrollará un programa orientado al desarrollo de proyectos empresariales, y a través del cual tratará de fomentar el espíritu emprendedor de sus alumnos.

Desde M.U. somos conscientes de que tenemos que estar en continua adaptación de nuestro modelo educativo a las necesidades actuales de la empresa y la sociedad, y es por esto que, a través de este segundo ciclo de Irún, asumimos el reto de desa-

rrollar la Promoción Empresarial y el Emprendizaje en el proceso de enseñanza-aprendizaje. En dicho proceso necesitamos trabajar, además de los conocimientos técnicos necesarios, aspectos relacionados con competencias y capacidades complementarias que nuestros alumnos necesitarán para formarse en estos ámbitos y estar preparados ante los retos que se les van a plantear, competencias tales como desarrollo de cualidades personales (creatividad, asunción de riesgos, etc.), capacidad de resolver problemas (planificación, toma de decisiones, trabajar en equipo, etc.), aprendizaje de forma autónoma, desarrollando la capacidad de crítica y confianza en sí mismos.

Para conseguirlo, sabemos que los métodos de enseñanza tradicionales no son suficientes. Por ello, este programa hace un especial énfasis en metodologías alternativas, tales como la

metodología del caso, el aprendizaje basado en problemas, el aprendizaje basado en proyectos y otros métodos complementarios (simulaciones, juegos de roles, etc).

Con todo esto, los objetivos que nos marcamos son los siguientes:

- Enfatizar en la gestión de nuevas oportunidades.
- Dedicar una atención constante a la integración de conocimientos interdisciplinares.
- Combinar la teoría y la práctica.
- Capacitar a los graduados en este programa a emprender, desarrollar y dirigir nuevas oportunidades de negocio.

Para desarrollar este segundo ciclo en el campus de Irún, contamos con la colaboración del Centro de Empresas e Innovación de Mondragón, Saiolan, que colaborará en el programa formativo a lo largo de estos dos cursos académicos.



**IKASLEAK
HASI DIRA
LANEAN**
Oraindik
zenbait
xehetasun
falta badira
ere multigu-
nea erabat
bukatzeko,
ikasleak hasi
dira berau
erabiltzen,
kasu honetan
irratsaio bat
egiteko.

HUHEZI HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

GELA MULTIMEDIA PREST DAGO, IKUS-ENTZUNEZKOAK LANTZEKO

Ikus-entzunezko Komunikazioan diharduten ikaslek prest dute gela multimedia bat, erabat digitala eta material berriarekin horritua. Gela horretan argazkigintza landuko da, edizio elektronikoa, multimedia produkzioa, bideo produkzioa eta audio produkzioa.

Gela ia amaituta dago, eta bertan ikasleek honako azpiegitura hauek aurkituko dituzte:

- Lau gela, bideo ediziorako. Horietatik, bi bereizmen handikoak.
- Estudio bat audioa lantzeko. Kontrol gela bat eta mintzalekua, dena 5.1 audio kalitatearekin.
- Bost ordenagailu autoediziorako eta multimedia lanak egiteko.
- Inprimagailu bat kalitate fotografiko gorenakoa, posterraketa egiteko.
- Bi bideo kamera bereizmen handikoak (HDTV) eta bolante bat grabazio bereziatarako.
- Lau bideo kamera (Mini DV), erdi mailakoak.
- Bi argazki kamera, bata profesionala eta bestea (12 MP) erdi profesionala (6 MP).
- Bi ekipo argiztapenerako.
- Lau mikro harigabeak.
- Tx Multimedia enpresak



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

lagundu du instalazioa egiten, eta Angel Katarain soinu ingeniaria arduratu da instalazioen audioa fintzen. Proiektuaren

ikuskatze lanak, berriz, Mikel Usabiagak egin ditu. Ikasleak hasiak dira bertan edizio lanaketa egiten.

NEKANE ARRATIBEL, HUHEZIKO DEKANO BERRIA

HUHEZIKo Errektore Kontseiluak Nekane Arratibel aukeratu du Jose Antonio Mendikute oraingo dekanoa ordezkatzeko, honek uztailaren amaieran hartuko baitu erretiroa.

Nekane Arratibel Lazkaon jaio zen, Gipuzkoan, orain 38 urte, eta Antzuolan bizi da orain, ezkondua eta 7 urteko seme batekin. Psikologia ikasi zuen EHUn, eta bertan egin zuen doktore tesia ere: "Helduen euskalduntzean era-giten duten faktore psikosozialak motibazioaren rola".

2000ko urrian hasi zen HUHEZIn irakasle lanetan. Aurten irakatsi du Gizarte Psikologia, Garapen Psikologikoa escola adinean eta Helduen irakaskuntza. Psikopedagogiako koordinatzailea izan da, Hizkuntzen departamenduko buru eta 3. zikloko eta ikerkuntzako arduraduna.

Ikasturte hau amaitu bitartean, Nekanek orpoz orpo egingo du lan Jose Antonio Mendikuterekin, karguaren gorabehererez jabetzeko.



Nekane Arratibel.

JOSE ANTONIO MENDIKUTE

“IRAKASKUNTZA ETA KOOPERATIBISMOA IZAN DIRA NIRE IPARRAK”

HAMABOST URTEREKIN
HASI ZEN LANEAN
ENPRESA BATEAN, BAINA
25 URTEREKIN KONTURA-
TU ZEN BERA IRAKAS-
KUNTZA ZELA. IRAKAS-
KUNTZA ETA KOOPERATI-
BAK. IKASTURTE HAU
AMAITZEAREKIN BATERA
HARTUKO DU ERRETIROA
JOSE ANTONIO MENDIKU-
TE HUHEZIKO DEKANOAK,
KARGUAN BOST URTE
EGINDA.

Nolatan konturatu zinen zurea irakaskuntza zela?

Debabarreneko hiru enpre-
satzen ibili nintzen lanean hamai-
ka urte, administrazio eta finan-
tza arloan, baina, halako bate-
an, abisatu zidaten irakasle bat
behar zutela Eibarko ikastetxe
batean, Kontabilitatea eta Mate-
matika ordu batzuk emateko.
Baietz esan nuen, eta orduan
konturatu.

Geroago, kooperatiben
zurrubiloan sartuta nentilela—
Eibarren Joan XXIII kontsumo
kooperatiba bat sortu genuen
Antonio Cancelorekin batera, eta
Eroskiko bigarren lehendakari
izan nintzen—, orduan eskaini
zidaten ETEOn irakastea. Eta
orduan, bai, bat egin zuten nire
bi ametsek, irakasteak eta koo-
peratiba batean lan egiteak. Izan
ere, geroago Euskadiko Kutxan lan
egin nuen, Enpresa Dibisioko
Ahokularitzan, baita Otarolan
ere, baina sekula ez nion utzi ira-

kasteari, ezta hemen dekanoa
izan naizen aldian ere.

Hain gazte lanean hasita, nola lortu zenuen doktore mailara iristea?

Garai hartan ez zegoen gaur-
ko erraztasunik. Beste etxe askotan
bezala, nirean ere ez zegoen
dirurik unibertsitatera joateko.
Ikastea nahi baguen, lan egin
10 ordu egunero, eta gero etxe-
anikasi, ezzegoen besterik. Lagun
batzuen apunteak jasotzen
nituen, eta horrela lizentziatu
nintzen Ekonomia eta Enpresa
Zientzietan. Gero, ETEOn nengoe-
la, aukera izan nuen Estatu
Batuetan egonaldia egin eta eko-
nomian doktoretza prestatzeko.

*“Irtsi naiz geltoki batera, eta utzi
egin behar dut tren hau, baina
beste bat hartuko dut.
Aurrerantzean ere gizartearen
zerbitzuan egingo dut lan”*

Nola iritsi zinen HUHEZira?

Otaloran nentilela, Mondra-
gon Unibertsitatea sortu zen, eta
HUHEZIn abiatu zen karrera berri
bat: Humanitateak-Enpresa. Hori
zela eta, eskatu zidaten karrera
hori zuzentzea, eta horrela eto-
ri nintzen.

Zer aurkitu zenuen HUHEZIn?

Atentzioa eman zidan nola-
ko hurbiltasuna zegoen irakas-

leen eta ikasleen artean. Giroa ere
oso ona zen, langileen artekooa.
Beste kontu batek ere harritu
ninduen: giro euskalduna. Ia
eskola guztiak euskaraz ematen
ziren.

Zeintzuk izan dira lan garran- tzitsuenak dekano izan zaren denboran?

Lanik bereziena izan da fakul-
tatea egituratzen joatea. Izan ere,
ni hona iritsi nintzenean 30 bat
langile izango ginien, eta orduan
zuzendaria banan-banan egon
zitekeen gutako bakoitzarekin,
eta horrela zuzendu. Orain, beriz,
bikoitzu egin da langile kopurua.
Hori batetik, baina ikasketei dago-
kienez ere, sekulako hazkundea
izan dugu. Hasieran Irakasle ikas-
ketak eta prestakuntza iraunkorra
ematen ziren soilik. Gero eto-
ri ziren Humanitateak-Enpre-
sa, Psikopedagogia, masterrak,
Ikus-entzunezko komunikazioa,
doktoretzak... Egituratu beharra
zegoen guztia, gauzak behar bezala
egiteko. Horregatik sortu geni-
tu gestio unitate berriak eta bul-
tzatu departamenduak

Zeintzuk dira HUHEZIren erron- kak gerora begira?

Batetik, indartzea sortu den
egitura, batez ere departamen-
duak. Bigarrenik, ikerkuntza bul-
tzatzea; orain arte lehentasuna
eman diogu hezkuntza ereduari,
baina iritsi da sasoia ikerkun-
tzan sakontzeko. Eta hirugarre-
nik, uste dut kokatu behar dugula
fakultatea Europako esparruan,
hitzarmenak eginda nazioarteko
unibertsitateekin. Horrekin bate-
ra, egokitu beharko ditugu gaur
egun ditugun karrerak Europa-



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

ko esparru berrira. Eta horrek ere aldaketak ekarriko ditu.

HUHEZIK badu dekano berria, Nekane Arratibel. Nola antolatuko duzue kargu hartzea?

Elkarrekin egingo dugu lan ikasturtea amaitu arte. Erraza izango da, Nekane Zuzendaritzan dagoelako, eta oso sartuta fakultatearen nondik norakoetan.

CINCO AÑOS DE DECANO
La enseñanza y el cooperativismo han sido los dos ejes centrales de la vida de José Antonio Mendikute.

Noiz hartuko duzu erretiroa?

Uztailaren bukaeran tokatzen zait, abuztuaren 1ean beteko ditut-eta 65 urte.

Ez duzu tentaziorik izan lehenago erretiratzeko?

Ez. Lana beti izan da importantea nire bizitzan.

Zer egingo duzu behin erretiroa

hartuta?

Iritsi naiz geltoki batera, eta utzi egin behar dut tren hau, baina beste bat hartuko dut. Eta norabidea bera izango da aurrerantzean ere: gizartearen zerbitzuan lan egitea. Horrek esan nahi du, irakurtzeko eta pasatzeko denbora hartzear gain, borondatezko lanetan ere jardungo dudala, osasunak lagundu arte behintzat.

LANKI

TALDE SENDOA ERATU DU KOOPERATIBISMOAREN INGURUKO HAUSNARKETA BIDERATZEKO

LANKIDETZAREN IKERTEGIA DA LANKI, ETA ESKORIATZAN DU ETXEA, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN. HAMAR LAGUNEK OSATZEN DUTE, ETA HORIEN EGITEKOA DA IKERTZEA KOOPERATIBAK ETA AUTOERAKETA, ETA HORTIK GOGOETA NAHIZ PRESTAKUNTZA ESKAINTEA KOOPERATIBEI.

Lankiren ernamuina izanzen Kooperatibismoaren Unibertsitatea Institutua, 1998an sortua. Javier Retegiren agintealdian, baina, honek eskatu zien Jon Sarasuari eta Joseba Azkarragari proiektu bat formulatzea, eta horren ondorioz aprobetxatu egin zuten izena aldatu eta Lanki sortzeko.

Testigantza izeneko proiektua landuta, non bildu baitzitzuten Arrasateko kooperatiba esperientziaren 45 ahots esangura-

tsuenak, konturatu ziren hutsune handiak zeudela arlo sozialean eta edukatiboan. "Gu sortu ginen arlo horiek berpizteko zerbitzu eta akuilo moduan", dio Jon Sarasua Lanki Ikertegiko zuzendariek. "Bigarren intuizioa izan zen kooperatibismotik harago jo behar genuela, eta autoeraketa hautatu genuen bigarren ardatz moduan ikertegirako. Horregatik begiratzen dugu MCCra ez ezik, baita euskal gizartera eta mundura, bereziki Hirugarren Mundura, Mundukiderekin batera".

Hori guzitza lantzko, Lankik mimo handiz prestatu du jende gaztea. Sei urtean lan handia egin du barrura begira, mintegi lana egiten. Horren emaitza da gaurko taldea, hamar lagunek osatua, jende gaztea eta ondo prestatua.

Gaur egun, honako lan hauek ditu Lankik esku artean:

- *Testigantza* proiektua. Aztertzen du Arrasateko kooperatiba

UN EQUIPO JOVEN El Centro de Investigación Lanki ha formado un equipo de trabajo joven y bien preparado, con una preocupación especial en el estudio del movimiento cooperativo.

esperientziako protagonista-handen diskurtsoa. Beharrezko, kooperatiba prestakuntza berri bat egiteko.

- Argitalpenak. Zazpi liburu argitaratu ditu, eta beste hiruzpalau, bidean.

- MCCren esperientziaren zentzua. Gogoeta bategin da MCCren kooperatiba guzietan, korporazioak bultzatuta. Lankik eraman du horren ardura teknikoa.

- Interkooperazioa Hirugaren Munduarekin. Mundukide-rekin batera.

- Ikastaroak. Etahoriekin batera, mintegiak, ikerketa txikiagoak, enkarguzko liburuak...

Bi kezka nagusi ditu Lanki Ikertegiak gerora begira: master bat prestatzea, erreferente izan nahi duena kooperatibismoaren inguruan. Eta bigarrenik, bultzatzea eta elikatzea kooperatiba prestakuntza bai MCCn eta baita M.U.n ere.





EDERTEK

INNOVANDO PARA CREAR FUTURO

EDERTEK ES UNA UNIDAD DE I+D PARTICIPADA POR EMPRESAS PERTENECIENTES A LA DIVISIÓN DE AUTOMOCIÓN DE MCC Y SE DEDICA, EN ESTRECHA COLABORACIÓN CON SUS CLIENTES, AL DESARROLLO DE NUEVOS MATERIALES Y COMPONENTES PARA EL SECTOR DE AUTOMOCIÓN.

Innovar más que una opción es una exigencia para adaptarse a los cambios y asegurarnos una posición de mercado en el futuro.

Edertek inició su actividad en 2003 y desde sus orígenes busca responder a los retos, con una serie de actuaciones con un obvio denominador común, la innovación. Una actitud de receptividad a los cambios y una apti-

tud creativa son los componentes que permitirán encauzar la empresa por las vías de la innovación hacia la competitividad en el mercado global.

Para ello Edertek orienta su actividad de innovación en tres áreas clave: Nuevos Productos,

Materiales y Procesos, incluyendo la innovación en la concepción y diseño de moldes y utilajes. En estos ámbitos, Edertek realiza actividades de investigación y desarrollo tecnológico en colaboración con M.U. y otros centros tecnológicos.

EDERTEK.
Edertek, I+G
empresa bat
da, eta
beronetan
parte hartzen
dute MCCren
Autogintza
saileko hainbat
enpresak.
Bere jarduera
Garaia Berri-
kuntza Gunera
eramango du.

ON ITS WAY TO GARAIA

That Edertek have opted for a collaborative model of research on-line is borne out by the fact that they will move their offices to a new building located in the Garaia Estate for their research work, when the Garaia Estate opens at the beginning of 2007.

Their location in Garaia, and the development of a collaborative research model, will allow Edertek to have access right from the start to Mondragon University and a highly qualified team of doctors and researchers.

EGOITZAK

M.U.K HAINBAT AUKERA ESKAINTZEN DITU IKASLEAK IKASTEGITIK GERTU BIZI DAITEZEN

ARRASATEN BERTAN, IKASTETXE NAGUSIA DAGO, ESKOLA POLITEKNIKOAN, ETA HOR 280 IKASLE BIZI DAITEZKE. OÑATIKO CAMPUSAK ERE EGOITZA BAT DU, 36 IKASLERENTZAKO LEKUAREKIN. UNIBERTSITATEAK, BESTALDE, SISTEMA BAT SORTU DU IKASLEAK ELKARREKIN BIZI DAITEZEN, ALOKATUTAKO ETXEBIZITZETAN.

M.U.ra datozenean, ikasle askok nahiago izaten dute aste barruan unibertsitatearen inguruari bizi, astun egiten baitzaie egunero etxera itzultzea. Bertan geratuz gero, bi aukera izaten dituzte: ostitu hartzea unibertsitateak eskaintzen dituen egoitzetan, edo etxebizitza bat alokatzea beste ikaskide batzuekin batera.

Pedro Biteri Ikastetxe Nagusia Arrasateko campusean dago, eta lekuak du 280 ikasle hartzeko. Banako logelak eskaintzen ditu, binakoak eta hirunakoak. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: bilerak, ikasgelak, liburutegia, infogela, musika gela, prentsa gela, kirol instalakuntzak, gimnasioa eta jangela, besteak beste. Ikasturtean barrena ikastetxe nagusiak hitzaldiak antolatzen ditu, tertuliak, mintegiak, ikastaroak eta kirol txapelketak.

Oñatiko campusak Larrañan bertan du egoitza, Enpresa Zientzien Fakultatean. Gaur egun tokia du 36 ikaslerentzat, banako eta binako geletan. Hauek ohea dute, dutxa, armairua eta mahi bat ikasteko. Bertan ostitu hartzen duten ikasleek garbiketa zerbitzua dute, jantoki zerbitzua eta hainbat azpiegitura aisia dirako: egongela, telebista gela, ikasgela, infogela...

Nahiago dutenentzat etxebizitzetan bizi beste ikaskide batzuekin batera, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen die web bidezko zerbitzu bat, eta horik ikasleek jakin ahal dute zenbat etxebizitza dauden osatu barik, non, zer preziotan, etab.



DOS RESIDENCIAS

COLEGIO MAYOR PEDRO VITERI

Está situado en el campus de Mondragón, y dispone de 280 plazas, repartidas en habitaciones individuales, dobles y triples. Ofrece varios servicios: sala de reuniones, salas de estudio, biblioteca, gimnasio, instalaciones deportivas y comedor. Su precio incluye desayuno y cena, así como limpieza de habitaciones y de ropa.

RESIDENCIA DE OÑATI

Se encuentra en el campus de Oñati y ofrece 36 plazas, repartidas en habitaciones dobles y triples. Dispone de sala de estar, sala de TV, sala de estudios, aula informática... Su precio incluye desayuno y cena, así como limpieza de habitaciones y de ropa.

PASATIEMPOS VARIOS

Los alumnos siempre encuentran un momento para el entretenimiento. Las residencias de M.U. disponen de varios servicios que lo garantizan.

KIROL LEGEA

UNIBERTSITATE KIROLA: DEFINIZIOA ETA TESTUINGURUA

NAHIZ ETA GEHIENOI LEGE
KONTUA GAI ASTUNA
SUERTATU, ARTIKULU
HAU ERABILI NAHI DUGU
AZALTZEKO EUSKAL KIROL
LEGEAK ZER DIOEN
UNIBERTSITATE KIROLAREN
INGURUAN.

Ikasturte honetako azken artikulu honetan, jakinarazi nahi dugu geure lan esparrua: unibertsitate kirola. Horregatik, hurrengoleroetan saiatuko gara unibertsitate kirolaren definizioa, kontzeptua eta bere testuingurua azaltzen.

Euskal Kirol Legeak, 1998an argitaratu zenak, honela defini-

tzen du unibertsitate kirola bigarren atalean: "Unibertsitate-elkarreko kideek berek bakarrik unibertsitateen kirol programen barruan burutzen dituzten kirol jarduera guztiak, aisialdikoak nahiz lehiakoak, joko dira unibertsitate-kiroltzat".

Honetaz gain, beste hainbat aipamen garrantzitsu egiten ditu, hala nola unibertsitateen autonomiari buruz, non azaltzen den unibertsitateei dagokielo kirola antolatzea eta sustatzea; unibertsitate ezberdinak kirol ekin-tzak bideratzeko Eusko Jaurlaritzak sortuko duela Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea; eta aginte publikoek lagunza emanago dietela unibertsitateei beren

**DEPORTE
UNIVERSITA-
RIO**

La ley reconoce que la universidad es una organización idónea para el fomento del deporte. Por medio de éste se transmiten valores como el trabajo en equipo y la camaradería.

eremuan kirola zabal dezaten.

Halaber, lege horrek dio ezinbesteko esparrutzat jotzen due-la unibertsitate kirola, kirola oro har gizarteratzeko edozein prozesutan. "Kirol eta gizarte garapen handiko herrietako esperimentziak erakusten digunez, unibertsitatea erakunde aproposa da kirol jarduera hedatzeko, kirol jardueraren jarraipena ziurtatzeko adin egokian dagoen biztanleria baitauka bere baitan".

Baina unibertsitate kirola gauza gehiagotik da garrantzitsua eta kontuan eduki beharrekoa, ez bakarrik kirolaren hedapenean egiten duen zubi lanagatik.

Baina hau datorren urteko artikuluren batean...



UZTAILA

■ ORLA BANAKETA

Uztailaren 6an, IKTF masterrean parte hartu duten azken bi promozioei diplomak banatu-ko zaizkie HUHEZIN.

■ IAFEP 2006

XIII Congreso *International Association for the Economics of Participation*. Oñati, del 13 al 15 de julio de 2006.

[www.eteo.mondragon.edu/IAFE
P/IAFEP.htm](http://www.eteo.mondragon.edu/IAFE/P/IAFEP.htm)

■ MASTER EN BANCA Y BOLSA ON LINE-MBB

Oñati, de octubre a junio de 2007.

www.eteo.mondragon.edu

■ MASTER EN SISTEMAS DE INFORMACIÓN EMPRESARIAL - MSI

Oñati, de octubre a junio de 2007.

www.eteo.mondragon.edu

■ MASTER EN DIRECCIÓN DE PROYECTOS EMPRESARIALES

Oñati, de octubre a junio de 2007

www.eteo.mondragon.edu

■ MASTER EN LOGÍSTICA INTEGRAL

Gasteiz, de octubre a junio de 2007 (670 h).

www.eps.mondragon.edu/moplog

■ CURSO EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL

Gasteiz, de octubre a mayo de 2007 (212 h).

www.eps.mondragon.edu/celog

■ MASTER SEMIPRESENCIAL EN PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

Arrasate, de octubre a junio de 2007.

www.eps.mondragon.edu/mprl

■ ADITUA HIZKUNTZEN KUDEAKETAN

Eskoriatza, 2006ko urritik ekainera.

www.huhezi.mondragon.edu/

■ PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA MASTERRA

Eskoriatza, 2006ko urritik ekainera.

www.huhezi.mondragon.edu/

■ XXI. MENDEKO HEZKUNTZA

ERRONAK:
KULTURARTEKOTASUNA ETA ELEANITASUNA MASTER OFIZIALA

Eskoriatza, 2006ko urritik ekainera.

www.huhezi.mondragon.edu/

■ IKERKETA MASTERRA HEZKUNTZAN (OFIZIALA)

Eskoriatza, 2006ko urritik ekainera.

www.huhezi.mondragon.edu/

IRAILA

■ CURSO AVANZADO EN AUTOMATIZACIÓN INDUSTRIAL

Arrasate, de septiembre a diciembre de 2006 (150 h).

www.eps.mondragon.edu/cauto

URRIA

■ MASTER EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS – MBA EXECUTIVE

Oñati, de octubre a junio de 2007.

www.eteo.mondragon.edu

■ MASTER OFICIAL EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS-MBA

- Mención Dirección General.
- Mención Dirección Financiera.

- Mención Dirección Marketing.
- Mención Logística y Transporte (Campus Bidasoa).

- Mención Gestión y Dirección de Entidades Deportivas.

Oñati, de octubre a junio de 2007.

www.eteo.mondragon.edu

■ MASTER OFICIAL EN GESTIÓN DE EMPRESAS COOPERATIVAS

Oñati, de octubre a junio de 2007.

www.eteo.mondragon.edu

AGENDA




ORLA BANAKETA. Joan den maiatzaren 26an diplomak banatu zitzaitzien HUHEZIn Irakasle Ikasketak eta Psikopedagogia amaitu dituzten ikasleei, tartean Heziketa Fisikoko lehen promoziokoei.

E I

Erosten jakin

**Musakola auzoa 11
ARRASATE
943 71 10 30
www.grupoeroski.es**





Las ganadoras del

Trivial Baqué son:

ITZIAR DE LA ENCINA MURUAGA
NORA AIZPITARTE ALONSO

que han conseguido un fin de semana para dos personas
en un Balneario al acertar la pregunta:

¿Dónde se cultivan los mejores arábicas?

- a- En los Países Árabes
- b- En Brasil y Colombia
- c- En África

respuesta:
En Brasil y Colombia



NUESTRA MARCA DE CAFÉ